



EUSKARA LANTZEKO HOBEKUNTZA-IKASTAROAK IRAKASLE- IKERTZAILEENTZAT

EUSKARA ZERBITZUA

2021

2020ko AZAROAREN 26ko DEIALDIA, EUSKARAREN eta ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO ERRETOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ DEI EGITEN BAITZAIE UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEI EUSKARA LANTZEKO HOBEKUNTZA-IKASTAROETAN PARTE HARTZERA.

Euskal Herriko Unibertsitatean euskararen egoera azterturik eta Euskararen III. Plan Gidariak dioenari jarraituz, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak ekimenak sustatu behar ditu irakasleen eta ikertzaileen hizkuntza-ezagutza eta -erabilera indartzeko eta zabaltzeko. Gure unibertsitateko beharrei erantzun nahian, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, ikastaro batzuk antolatu ditu ikasturte honetan ere, euskaraz irakasten eta ikertzen duten irakasle-ikertzaileak trebatzeko.

Zehazkiago, bi ikastaro-modalitate eskaintzen dira deialdi honen bitartez:

a) Etengabeko hizkuntza-prestakuntzako **Hobekuntza** Programak, irakasleen eta ikertzaileen hizkuntza-ezagutzak eguneratzea eta sakontzea helburu dutenak (C2 maila).

b) **EIGA** prestakuntza-programan aurreikusitako autoikaskuntza-programak, hiztun gaituaren akreditazioa eskuratzea helburu dutenak (C1 maila).

Ikastaro hauek Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzarako EHP-2020 Planaren testuinguruan eta haren babesarekin antolatu dira. Horrela, bada, parte-hartzaileek plan horretan aurreikusten diren egiaztagiriak eta aitortzak jasoko dituzte, ikastaroen aprobetxamendu-baldintzak ondo betetzen badira. Informazio guztia hemen kontsulta daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/iri-hizkuntza-prestakuntza/aitortzak>

Hobekuntza-ikastaroen edukietara etorririk, lehenbizi Euskara Zerbitzuaren hizkuntza-aholku didaktikoak (**EHULKUak**) hizkuntzaren arloen arabera sailkatu eta landuko dira; era berean, garrantzitsua deritzogu Internetek ematen dituen **hizkuntza-lanabes bereziak** ezagutzeari eta zabaltzeari, hala nola hiztegiak, terminologia, euskarazko softwarea, zuzentzaileak, dokumentazio-zentroak, eta abar: ikastaro bat prestatu dugu UPV/EHUko irakasle-ikertzaileak halako lanetan trebatzeko. Horiekin batera, Testu akademikoak sortzeko, irakasle-ikertzaileek etengabe jo beharra izaten dute **itzulpenera**: eginkizun horretan trebatzeko lantegia eskaintzen jarraituko dugu ikasturte honetan ere. Halaber, euskara batuko arau-kontuetara etorriko gara ikastaro batekin: aurreko



urteetan eskainitako ikastaroaren jarraipen gisara ulertuta, han landu ez ziren edo behar bezain sakon landu ez ziren arauak izango ditu aztergai "**Euskaltzaindiaren araugintzan sakontzen**" ikastaroak. Azkenik, Euskara Zerbitzuak testuliburu eta ikasmaterial teknikoetan egiten dituen **ohiko zuzenketen** inguruko ikastaro bat eskaintzen jarraituko dugu, urtearen amaieran. Ez dago esan beharrik etengabe eguneratzen ditugula edukiak aurreko urteetan emandako ikastaroetan.

EIGA programa, berriz, HABEren B2C1 maila gainditua duten eta 2020/21 ikasturtean C1 mailako HABEren azterketa-proba edota UPV/EHUren EIGA proba egiteko asmoa duten irakasle eta ikertzaileei dago zuzenduta. Autoikaskuntza gidatuaren modalitatean eskainiko da, eta azterketa-probari begirako prestakuntza indibidualizatua eskainiko da ikastaroan. Urtarrila-martxoa bitartean eskainiko da, eta 63 orduko dedikazioa izango du (50 ordu bakarkako lan tutorizatu egiteko; 10 ordu taldeko ahozko jarduerak egiteko; eta 3 ordu banako tutoretza egiteko). Ikastaroa amaitutakoan, azterketaren data bitartean luzatzeko aukera egon liteke (lortutako emaitzen arabera), hala eskatzen badu parte-hartzaileak. Ikastaro honetan parte hartu ahal izateko, **B2C1 gainditu izana egiaztatu beharko dute** parte-hartzaileek. Horretarako, euskaltegiak egindako ziurtagiria erakutsi beharko dute. Bestela, maila egiaztatzeko proba bat egin beharko dute, ikastaroan espero den gutxieneko maila baduela bermatzeko.

Izena emateko epea: 2020ko azaroaren 26tik abenduaren 11ra

Webgune hauetan aurkituko ditu interesa duenak ikastaroen programak eta argibide gehiago (metodologia, edukiak, izena emateko fitxa, eta abar):

EHP-2020 Plana: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/iri-hizkuntza-prestakuntza>

Hobekuntza-ikastaroak:

<http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/hobekuntza-ikastaroak-irakasleak>

EIGA programa: <https://www.ehu.eus/documents/2660428/23308378/EHP-2020-EUS.pdf/8582dc15-5d4b-fbce-c353-8fe87f1d451a?t=1595357597133> (ikus 16. orrialdea)

HOBEKUNTZA IKASTAROAK

2021

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	MAIATZA	URRIA
[OL1] EHULKU: EUSKARA ZERBITZUAREN HIZKUNTZA-AHOLKUAK	[OL2] INTERNETEKO HIZKUNTZA- BALIABIDEAK	[OL3] TESTU AKADEMIKOAK ITZULTZEN TREBATZEKO LANTEGIA	[OL4] EUSKALTZAINDIAREN ARAUGINTZAN SAKONTZEN	[OL5] UNIBERTSITATEKO TESTUAK: OHIKO ZUZENKETAK
15 ordu	20 ordu	20 ordu	15 ordu	20 ordu
Jesus Mari Makazaga UPV/EHUko Euskara Zerbitzua	Julio García UPV/EHUko Euskara Zerbitzua	Iñigo Roque UPV/EHUko Euskara Zerbitzua	Manu López Gaseni UPV/EHUko Euskara Zerbitzua	Kenari Gómez UPV/EHUko Euskara Zerbitzua
UPV/EHUko irakasle- ikertzaileak	UPV/EHUko irakasle- ikertzaileak	UPV/EHUko irakasle- ikertzaileak	UPV/EHUko irakasle- ikertzaileak	UPV/EHUko irakasle- ikertzaileak
HIRU ASTE urtarrilaren 18tik otsailaren 5era	LAU ASTE otsailaren 1etik 26ra	LAU ASTE martxoaren 1etik 26ra	HIRU ASTE maiatzaren 3tik 21era	LAU ASTE urriaren 11tik azaroaren 5era
25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez

URTARRILA-EKAINA
EIGA IKASTAROA Hizkuntza-akreditazioa eskuratzeko azterketa prestatzeko ikastaroa
63 ORDU
Arduraduna: Ulibarri Euskaltegia
Hartzaileak: UPV/EHUko irakasle-ikertzaileak
Iraupena: Hiru hilabete Hasiera-data norberak zehazten du
10 ikasle gehienez
Zalantzak argitzeko: joseba.ezeiza@ehu.eus

Oharrak:

- Ikastaro honetan parte hartu ahal izateko, HABEren B2C1 gainditu izana egiaztatu beharko dute parte-hartzaileak.
- Programa honetan ikerketa eta irakaskuntza-zereginetarako beharrezkoa den oinarritzko maila lantzen da
- Helburu nagusia hauxe: irakasle- zein ikertzaile-kontratu edo plaza elebidunak betetzeko nahitaezkoa hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten azterketa probetara joateko prestatzea.,
- Ikastaroa “autoikaskuntza” modalitatean eskaintzen da. Parte-hartzaileak tutore bat izango du, eta ikaskuntzarako hainbat material. Horrez gain, taldeko eta banako saio batzuk ere izango ditu, ahozko gaitasuna indartzea helburu dutenak.
- Guztira 63 orduko dedikazioa du (50 ordu autoikaskuntzan, 10 ordu taldeko saioetan eta 3 ordu banako saioetan)
- Parte hartzaileak 3 hilabeteko epe-muga izango du ikastaroa egiteko, ikastaroan alta ematen den egunetik zenbatzen hasita.
- HABEk homologatutako euskaltegi baten gidaritzapean egingo da ikaskuntza-prozesua, eta HABEk ezarritako prozedurari jarraikiz egingo da ikaslearen lorpenen ebaluazioa.
- Parte-hartzaileak hala eskatzen badu, aztertuko da ikastaroa azterketaren egunera arte luzatzeko aukera, beti ere, lehen hiru hilabeteetan aprobetxamendua ona izan bada.

EUSKARA LANTZEKO HOBEKUNTZA-IKASTAROAK IRAKASLE-IKERTZAILEENTZAT 2021

Izena emateko epea 2020ko azaroaren 26an hasi eta abenduaren 11n amaituko da!
Azkar ibili, beraz, zure intereseko ikastaroak garaiz aukeratzeko!

NOLA EMAN IZENA:

A) HOBEKUNTZA-IKASTAROAK

IDATZ ITZAZU HONAKO FITXA HONETAN ESKATZEN DIREN DATUAK (**FITXA BAT IKASTARO BAKOITZEKO**), ETA BIDAL EZAZU HELBIDE ELEKTRONIKO HONETARA 2020KO ABENDUAREN 11RAKO: maite.atxikallende@ehu.eus

IZEN-DEITURAK* :

NORTASUN-AGIRIAREN ZENBAKIA :

SAILA :

IKASTEGIA :

HELBIDE ELEKTRONIKOA :

HARREMANETARAKO TELEFONOA :

EGIN NAHI DEN IKASTAROA :

IKASTAROAREN KODEA :

CAMPUSA :

OHARRAK:

1. ZIURTAGIRIA EGITERAKOAN ESKAERA-ORRI HONETAN JASOTZEN DITUGUN IZEN-DEITURAK ERABILIKO DITUGU
2. Taldeetako ikasleen kopuru mugatua dela eta, ikasketariak ahalegin berezia egin behar du eskatu dituen ikastaroetan parte hartzeko.
3. Ikastaroak dohainik eskaintzen dira.
4. Ikastaro guztiak irekiak dira EHuko hiru campusetako irakasle-ikertzaileentzat.
5. Taldeak osatu ahala idatziko diegu interesatuei, onartuta dauden ala ez jakinarazteko.

B) EIGA IKASTAROA

IDATZ ITZAZU HONAKO FITXA HONETAN ESKATZEN DIREN DATUAK (**FITXA BAT IKASTARO BAKOITZEKO**), ETA BIDAL EZAZU HELBIDE ELEKTRONIKO HONETARA 2020KO ABENDUAREN 11RAKO: maite.atxikallende@ehu.eus

Abizenak	
Izena	
NA zenbakia	
Helbide elektronikoa(k)	
Helbidea	
Harremanetarako telefonoa	
Kategoria profesionala	
Saila/Doktoretza-programa	
Atxikitze-ikastegia	
Batxilergoko ikasketak euskaraz?	
Unibertsitate-ikasketak euskaraz?	
Euskara-ziurtagiririk?	
Euskaltegian ikastarorik?	
Azken ikastaroa noiz:	
Lortutako azken maila:	

Leioan, 2020ko azaroaren 26an



Jon Zarate Sesma
UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren
arloko errektoreordea